

## Euskara lehen lerroan jarriko duen berraxikitze-prozesu argi eta gardena behar du Lanbide Heziketak



Ikastetxe berean espezialitate bereko baina hizkuntza eskakizun desberdineko lanpostuetara berraxikitze prozeduran dokumentuaren aurkezpena egin du Sailak. **LABek ez du dokumentu hori nahikotzat jotzen**, eta berraxikitzeen prozeduraren diseinua eta zalantzak helarazi dizkio Hezkuntza Sailari.

Lehenik eta behin, **dokumentuaren interpretaziotik ondorioztatzen da** 1. hizkuntza-eskakizuna (1.HE) duen lanpostu baten titularrak 2. hizkuntza-eskakizuna (2.HE) egiaztatuta badu, bere lanpostuaren profila 2.HEra aldatzea eska dezakeela, eta horrela lanpostu horretan berraxikitzeko aukera izango lukeela, ezabatua edo ordurik gabe geratu beharrik izan gabe.

**Interpretazio hori berresten bada, garrantzi handiko elementu baten aurrean egongo ginateke;** izan ere, horrek esan nahiko luke 2.HE profila duten lanpostuak ez daudela derrigorrez euskarazko irakaskuntzari lotuta, baizik eta euskaraz zein gaztelaniaz jardun ahal

Gaur, apirilak 27, Lanbide Heziketako mahai teknikoa izan dira Lakuan. Gai-zerrenda bakarra izan da: Lanbide Heziketan lanpostuen perfilazioa aldatzea.

Hauk dira mahaiari landu diren eduki nagusiak:

izango litzatekeela. Gai honek, gure ustez, Sail horren aldetik berariazko eta idatzizko baieztapena behar du.

**Sailak adierazi du** 143/2025 Uztailaren 8ko dekretuan adierazten den bezala **ez dela desberdinduko zerrendarik hizkuntza eskakizunagatik, LABen urteetako eskaera izanik.** Horrela betetzeko eta ikuskatzeko adierazi diogu Sailari; izan ere, kontrako efektuak gertatu ziren ebazpen honen aurretiaz, 2024-2025 ikasturteko suprimituekin hizkuntza eskakizunagatik desberdinak gertatu zirelako.

Bukatzeko, **LABetik euskaldunon eskubideak babesten dituen berraxikitzeen dokumentu oso bat lortu arte lanean jarraituko dugu**, baita dokumentu hori zuzendaritza eta langile guztiengana modurik argi eta eraginkorrean helarazteko ere. Bide horretan, LABek bere prestasuna eskaitzen die zuzendaritza eta langile guztiei bidelagun izateko.